

# ERAKUSTEKO KAMISETAK
# CAMISETAS QUE ENSEÑAN

Garapen Jasangarrirako Helburuei
buruz kontzientziatzeko irudiak

Imágenes para concienciar sobre
los Objetivos de Desarrollo Sostenible

**ERAKUSTEKO KAMISETAK**
Garapen Jasangarrirako Helburuei buruz
kontzientziatzeko irudiak

**CAMISETAS QUE ENSEÑAN**
Imágenes para concienciar sobre
los Objetivos de Desarrollo Sostenible

Erakusketaren komisariotza eta antolaketa
Comisariado y organización de la exposición
**Leire Fernández Iñurritegui**
**Eduardo Herrera Fernández**

Diseinua eta maketazioa
Diseño y maquetación
**Leire Fernández Iñurritegui**
**Eduardo Herrera Fernández**

© de los textos: sus autores
© de las imágenes: sus autores
© de la edición: Leire Fernández Iñurritegui,
Eduardo Herrera Fernández
y Euskal Herriko Unibertsitatea /
Universidad del País Vasco, 2022

ISBN: 978-84-09-44206-5

---

*Erakusketa hau garapen jasangarriari laguntzeko erantzukizunarekin bat datozen prozesu eta baliabide materialekin egin da.*
*Kamisetak % 100 organikoa den kotoi ziurtatuarekin eginda daude, pestizidarik edo ongarririk erabili gabe; beraz, ingurumena errespetatzen dute. Erabilitako materialek ere bidezko merkataritzako ziurtagiria dute, eta horrek bermatzen du kotoia bildu eta prozesatzen duten langileek bidezko tratua jasotzen dutela.*
*Kamisetak BILBOTEXek inprimatu ditu, merkatuko ingurumen-ziurtagiri eta -etiketa zorrotzenak dituen enpresak. Inprimaketa-prozesuetan ur-oinarri biodegradagarriak eta ez-toxikoak dituzten tintak erabili ditu, eta produktu kimiko edo disolbatzaile kaltegarriak erabiltzeko beharra kendu du.*

*Esta exposición se ha realizado con procesos y recursos materiales acordes con la responsabilidad de contribuir al desarrollo sostenible.*
*Las camisetas están confeccionadas con algodón 100% orgánico certificado, cultivado sin el uso de pesticidas o fertilizantes, por lo que son respetuosas con el medio ambiente. Los materiales utilizados también tienen el certificado de comercio justo, lo que garantiza que los trabajadores que cosechan y procesan el algodón reciben un trato justo.*
*Las camisetas han sido impresas por BILBOTEX, empresa que cuenta con las certificaciones y etiquetas medioambientales más estrictas del mercado. Se han utilizado en los procesos de impresión tintas de base acuosa biodegradables y no tóxicas, eliminando la necesidad de productos químicos o disolventes perjudiciales.*

Euskal Herriko Unibertsitateak konpromiso irmoa du Nazio Batuen Erakundeak onartu eta zabaldutako Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH). Gure erakundean, EHUagenda 2030 planaren bidez gauzatu da konpromiso hori. Ekimen ugari jarri ditugu martxan ildo horretan; alabaina, agian oinarri emozional bat falta zitzaien, tresna sinboliko bat, bitarteko bat, erronka kolektibo hori modu bisual batean indartzeko eta bultzatzeko.
Nire ustez, *Erakusteko kamisetak* egitasmoak behar horri erantzuten dio; Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektu hori gure Arte Ederren Fakultatean egin da, Diseinu Grafikoko ikasgelen bidez. Modu erabakigarrian parte hartzen du, behintzat, GJHak ikusarazteko eta haiekin emozionatzeko helburu horretan, bai eta gizartearen aurrean garapen ekonomiko eta sozial jatorrago eta jasangarriago bat lortzeko gure konpromisoa proiektatzeko helburuan ere.
Gaur egungo gizartean, diseinu grafikoa tresna aparta da, ideiak eta balioak ikusarazteko. Eta kamiseten pareko euskarri gutxi izango dira, haiek hainbesteko eraginkortasunez zabaltzeko, jantzi horren presentzia izugarri handitu baita belaunaldi berrien artean. Horren harira, liburu honetan ageri den ekimenak mezuaren eraginkortasuna eta euskarriaren populartasuna uztartu ditu.
Amaitzeko, beren sormenez proiektuan parte hartu duten pertsona guztiak zoriondu nahi ditut, eta nahiko nuke ere proiektuak ibilbide luzea izatea. Unibertsitateak horiek partekatzen ditu noski, eta honako hau bezain originalak diren ekimenen bidez zabaltzearen alde egiten du.

Eva Ferreira
EHUko errektorea

La Universidad del País Vasco mantiene un firme compromiso con los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS), aprobados y difundidos por la Organización de Naciones Unidas. En nuestra institución, ese compromiso se ha materializado a través del plan EHUagenda 2030. Son muchas las iniciativas que hemos adoptado en esa misma línea, pero acaso faltaba, para ellas, un anclaje emocional, un instrumento simbólico, algo que potenciara e impulsara, de forma visual, esa apuesta colectiva.
Creo que *Camisetas que enseñan*, proyecto de innovación educativa desarrollado desde nuestra Facultad de Bellas Artes, a través de las aulas de Diseño Gráfico, cubre esa necesidad. Al menos participa de forma decisiva en ese objetivo de visualizar los ODS, de emocionarnos con ellos, y de proyectar ante la sociedad nuestro compromiso a favor de un desarrollo económico y social más amable y sostenible.
El diseño gráfico es un espléndido instrumento, en la sociedad contemporánea, para visualizar ideas y valores. Y pocos soportes para el mismo puede haber más difundidos y eficaces que la camiseta, una prenda que ha ganado enorme presencia en las nuevas generaciones. En ese sentido, la iniciativa que se expone en este libro aúna la eficacia del mensaje con la popularidad del soporte.
Sólo me queda felicitar a todas las personas que han participado, con su creatividad, en el proyecto y desear para el mismo la mayor difusión. La universidad, desde luego, comparte esos valores y apuesta por extenderlos a través de iniciativas tan originales como esta.

Eva Ferreira
Rectora de la UPV/EHU

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Erakusketa honetan, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Arte Ederren Fakultatean diseinu grafikoaren diziplinan garatutako irakaskuntza-berrikuntzako proiektu baten bidez lortutako emaitzen zati bat aurkezten da. Hezkuntza-esperientzia hori gure unibertsitate publikoak hartutako konpromisoaren parte da, NBEren Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako Helburu batzuen bidez (GJH) proposatutako ekintzarako deiari dagokionez. UPV/EHUren hezkuntza-eredu propioaren parametroei jarraiki (IKD i3) eta Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren (SAE-HELAZ) bidez bideratuta, diseinuko unibertsitate-hezkuntza tradizionalki lotu izan den eremuetatik haragoko espazioetara bideratu dugu sorkuntza grafikoko proiektu hau. Garapen eta jasangarritasun sozialeko aukeretan aurrera egitea ahalbidetuko duten bideak marraztu behar diren espazioak.
Erakusketa honek kamisetetan inprimatutako 108 irudi ditu, batez ere GJHetan ezarritako egoera konplexuen aurrean jarrera aktibistarekin eginak eta pertsonen, oparotasunaren, planetaren, bakearen edo aliantzen beharraren aldeko ekintza-planekin konpon daitezkeenak. Irudi horien bidez eragileak sortu nahi dira, gatazka- eta bidegabekeria-egoerak gizartean eraldatzeko herritarrek kontzientzia har dezaten, modu sentikorrean. Eta horrekin, diseinu grafikotik, mundu jasangarria posible izan daitekeela erakutsi.

Leire Fernández y Eduardo Herrera
Erakusketaren komisarioak

En esta exposición se presenta una parte de los resultados obtenidos a través de un proyecto de innovación educativa, desarrollado en la disciplina del diseño gráfico, en la Facultad de Bellas Artes de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU).
Una experiencia educativa que forma parte del compromiso adquirido por nuestra universidad pública con respecto a la llamada a la acción propuesta por la Asamblea General de la ONU a través de diversos Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS). Siguiendo los parámetros del modelo educativo propio de la UPV/EHU (IKD i3) y orientado a través de su Servicio de Asesoramiento Educativo (SAE-HELAZ), hemos encaminado este proyecto de creación gráfica hacia espacios más allá de aquellos con los que tradicionalmente ha sido vinculada la educación universitaria en diseño. Unos espacios hacia los que se deben trazar caminos que permitan avanzar en oportunidades de desarrollo y sostenibilidad social.
Esta exposición consta de 108 imágenes impresas en camisetas, realizadas desde una actitud eminentemente activista ante aquellas situaciones complejas establecidas en los ODS y que pueden resolverse con planes de acción a favor de las personas, de la prosperidad, del planeta, de la paz o de la necesidad de alianzas. Con estas imágenes se pretende crear detonantes que puedan, de forma sensible, ayudar a la toma de conciencia ciudadana para la transformación social de situaciones de conflicto e injusticia. Y con ello demostrar, desde el diseño gráfico, que un mundo sostenible puede ser posible.

Leire Fernández y Eduardo Herrera
Comisarios de la exposición

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
i3kd

**Garapen Jasangarrirako Helburuei buruz kontzientziatzeko irudiak**

Diseinu grafikoa sorkuntza artistikoaren esparru bat da, ezagutzara, jarreretara eta giza portaerara bideratutako komunikazio bisualak sortzeak zehazten duena. Hori dela eta, diseinu grafikoak pertsonekin eta gizartearekin elkartzera garamatza. Giza arazoekiko enpatia horretatik abiatuta adierazi du diseinuak giza garapenaren jasangarritasunerantz eta ingurumenaren alde egiteko ezinbesteko konpromisoa hartu nahi duela. Hori da funtzio soziala duen diseinuaren oinarria, eta horren zati bat «diseinu aktibista» izenda daiteke.

Diseinu aktibistaren definizio horretatik abiatuta, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Diseinu Grafikoko geletan garatutako irakaskuntza-berrikuntzako proiektu honetan, irudi-sorta zabala sortu da, Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) funts hunkigarrian sartzen saiatzen direnak. Irudi diskurtsibo horiek, aldi berean, intuitiboak eta gizakiaren barne-esperientzien oroigarriak dira, eta arazoen aurrean gure harmena bideratu nahi dute, errealitate sakonagoetan sartzeko. Irudi aktibistak, azken batean, gizakiak aurrean dituen erronka handien aurrean gizartea eraldatzeko gure alderdiari modu sentikorrean eragingo dioten eragile bihurtu nahi dutenak.

Erakusketa honetako kamiseta guztietan GJHekin lotutako hainbat errealitate «erakusten» dira. Horretarako, presente ez dagoen zerbait erakutsi nahi duten eguneroko objektuen irudikapenak konbinatzen dira. Objektu horiek jatorrizko esanahitik bereizten dira, ikuspegi berrietatik begiratzera gonbidatzeko, modu horretan errealitate berri batean parte hartuz. Errealitate berri horrek ohiko ordena nahasten du, eta arazoei buruz dugun pertzepzioa zabaltzea ahalbidetzen du, gure barrenean dauden pentsamenduak eta emozioak mugituz. Istorio berriak eraikitzera eta gogoeta egitera bultzatu nahi gaituzten irudiak dira. Irudikatutako objektuei zentzu berriak, esanahi berriak, errealitate berri ezberdinak bilatzera bultzatzen gaituzten irudiak. GJHen inguruan egindako irudi horiek, nolabait, pentsamenduaren legeen aurkako erronka dira. Modu poetikoan bakarrik uler daitezke, erreferente objektibo desberdinen norabide adierazgarriak gurutzatuz zentzua eraikiz. Azken batean, hizkuntza grafiko poetikoa duten irudiak dira, irudi grafikoetatik abiatuta irudi mentalak sortzeko aukera ematen dutenak. Eta horrela, GJH guztien konplexutasuna modu sarkor eta biziagoan ulertu, sumatu edo sentitu ahal izatea.

Imágenes para concienciar sobre los Objetivos de Desarrollo Sostenible

El diseño gráfico es un ámbito de la creación artística determinado por la producción de comunicaciones visuales dirigidas al conocimiento, las actitudes y el comportamiento humano. Desde esta consideración, el diseño gráfico nos lleva al encuentro con las personas y la sociedad. Será a partir de esta empatía hacia los problemas humanos desde la que el diseño declara su voluntad de ejercer el ineludible compromiso para dirigirse hacia la sostenibilidad del desarrollo humano y en favor del medio ambiente. Esta es la base sobre la que se sustenta el diseño con función social, una parte del cual podría denominarse como «diseño activista».

Desde esta definición de diseño activista, en este proyecto de innovación educativa desarrollado en las aulas de Diseño Gráfico de la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU, se ha creado un amplio repertorio de imágenes que intentan penetrar en el conmovedor fondo de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS). Unas imágenes discursivas que, a su vez, poseen un carácter intuitivo y evocador de experiencias internas del ser humano, y que pretenden conducir nuestra receptividad ante los problemas para introducirnos en realidades más profundas. Imágenes activistas, en definitiva, que aspiran a transformarse en detonantes que accionen, de forma sensible, nuestra toma de partido para la transformación social ante los grandes retos a los que se enfrenta la humanidad.

En todas las camisetas de esta exposición se «enseñan» diferentes realidades relacionadas con los ODS. Para ello se combinan representaciones de objetos cotidianos que pretenden mostrar algo que no está presente. Unos objetos a los que se separa de su significado original para invitarnos a que los miremos desde nuevas perspectivas, participando de esta manera de una nueva realidad. Una nueva realidad que perturba el orden habitual y que permite abrir nuestra percepción de los problemas, movilizando los pensamientos y emociones que se encuentran en lo más profundo de nosotros mismos. Son imágenes que pretenden incitarnos a que construyamos nuevas historias y a reflexionar. Unas imágenes que nos persuaden a buscar nuevos sentidos a los objetos representados, nuevos significados, nuevas realidades diferentes.

Estas imágenes realizadas en torno a los diferentes ODS son, de alguna manera, un desafío a las leyes del pensamiento. Solo pueden ser comprendidas de forma poética, construyendo un sentido mediante el cruce de las direcciones significantes de los diferentes referentes objetuales. Son, en definitiva, unas imágenes que implican un lenguaje gráfico de carácter poético, que permite que podamos generar imágenes mentales a partir de las imágenes gráficas. Y de esta manera, poder llegar a comprender, intuir o sentir, de forma más penetrante e intensa, la complejidad de todos y cada uno de los ODS.

**Erakusteko kamisetak**

Kamiseta, XX. mendearen hasieran barruko arropa xume gisa sortutako jantzia, jantzi herrikoitzat hartzen joan da, errebeldiaren sinbolo bilakatzeko eta modaren lehen lerrora iristeko. Gaur egun, gure janzkeraren arrazoizko jantzi bat edo bakoitzak erakutsi nahi duen estatusaren sinbolo bat baino haratago, kamisetak beste urrats bat egin du, komunikazio grafiko sozialerako euskarri oso eraginkor bat izatera iritsi arte. Beste era batera esanda, kamiseta interpretatu nahi dugun rol sozialari buruzko iragarki moduko bat da. Eta horrela, janzteko bere hasierako erabileratik haratago, gizarte-aktibistaren sinonimo bihurtu da.
Ehun-inprimaketaren aukerei esker, kamiseta ibilgailu adierazkor ikusgarri bihurtu da, eta horren bidez, pertsonek ideologiak babestu, bidegabekeriak salatu, kausak defendatu, nahiak aldarrikatu, kezkak partekatu edo giza arazoei buruz kontzientziatzen saia daitezke. Jantzi honetan inprimatu daitezkeen mezuek, nolabait, jendeak bere buruaz eman nahi duen irudia islatzen dute. Daramanaren asmoen adierazpena. Horrela, kamisetak gizartearen eta janzten dituen jendearen ispilu bihurtu dira gaur egun. Ildo horretan, kamisetak «arbelaren» zeregin soziala hartu du bere gain, eta mezuak «erakustekoa» (heztea) eta, horien bidez, «erakustekoa» (ikusgai jartzea), gizarte-arazoen ezagutza lortzeko. Beraz, ukaezina da kamiseta ez dela jada beste jantzi bat bakarrik, baizik eta espazio publikoan adierazteko tresna eramangarri bat, aldatzeko borondatea aktibatu dezakeena.

Camisetas que «enseñan»

La camiseta, una prenda surgida a principios del siglo XX como humilde ropa interior, ha ido evolucionando en su consideración como prenda de vestir popular para llegar a transformarse en símbolo de rebeldía e incluso alcanzar la primera línea de moda. Hoy en día, más allá de una asequible prenda de nuestra vestimenta, o de un símbolo del estatus que cada cual quiere exhibir, la camiseta ha dado un paso más, hasta llegar a erigirse también en una oportunidad de soporte de comunicación gráfica social muy efectivo. Dicho de otra manera, la camiseta se ha constituido en el presente en una especie de anuncio hacia los demás del rol social que queremos interpretar. Y de esta manera, más allá de su uso primigenio para vestir, ha llegado a convertirse en sinónimo de activista social.
Gracias a las posibilidades de la impresión textil, la camiseta se ha transfigurado en un vehículo expresivo increíblemente visible, mediante el cual las personas pueden apoyar ideologías, denunciar injusticias, defender causas, reivindicar deseos, compartir inquietudes, o intentar concienciar sobre los problemas humanos. De alguna forma, los mensajes que pueden imprimirse en esta prenda reflejan la imagen que la gente quiere dar de sí misma. Una declaración de intenciones de quien la lleva. Así, las camisetas se han constituido actualmente en un espejo de la sociedad y de la gente que las viste. En este sentido, la camiseta ha asumido el papel social de «pizarra» donde «enseñar» (mostrar) mensajes y a través de ellos poder «enseñar» (educar) para lograr alcanzar el conocimiento de problemas sociales. Por consiguiente, se hace innegable que la camiseta ya no es solo una prenda más, sino una herramienta portátil de expresión en el espacio público que puede activar la voluntad de cambio.

**01**
POBREZIAREN AMAIERA
FIN DE LA POBREZA

**Etxebizitza da, gizarte-bazterketaren faktore nagusia izateaz gain, hirietako bizitzaren kostuan eragin handiena duen faktorea. /** La vivienda es la dimensión que más impacta en el coste de la vida de las ciudades, además de ser el principal factor de exclusión social.



**Baliabide hidrikoetan genero-ikuspegia aplikatuz inbertitzeak gizarteratzea indartzen, pobrezia desagerrarazten eta ingurumenaren jasangarritasunerantz aurrera egiten laguntzen du. /** Intervenir en la aplicación de la perspectiva de género en los recursos hídricos contribuye a reforzar la inclusión social, erradicar la pobreza y avanzar hacia la sostenibilidad medioambiental.



**Pobrezia energetikoa norbere bizitza hobetzeko adina energia ez izatea da. Edo energiarik ez izatea. Mundu osoko ia 800 milioi pertsonek ez dute elektrizitaterik, eta 2.600 milioi inguruk (munduko biztanleriaren herenak) ez dute janaria prestatzeko erregai garbirik. /** La pobreza energética es no tener suficiente energía para mejorar en tu vida. O no tener energía en absoluto. Casi 800 millones de personas en todo el mundo no tienen electricidad, y unos 2600 millones, un tercio de la población mundial, no tienen acceso a combustibles limpios para cocinar.



**Kanpo-zorraren amaiera funtsezkoa da pobrezia murrizteko. Zorra arintzea politika sozialekin eta, beraz, pobreziaren murrizketarekin lotuta dago. /** El fin de la deuda externa es clave para reducir la pobreza. El alivio de la deuda va unido a las políticas sociales y, por tanto, a la disminución de la pobreza.



**Guztientzako gizarte-babeseko sistemak finantzatzeko neurri egokiak praktikan jarri behar dira estatu-mailan, gutxieneko mailak barne. Eta horrela, pobreen eta kalteberen estaldura zabala lortu. /** Es necesario poner en práctica a nivel nacional medidas apropiadas de financiación de sistemas de protección social para todos, incluidos niveles mínimos. Y así, lograr una amplia cobertura de los pobres y los vulnerables.






Janire Sanz
Irati Peralta
Maitane Bautista
Nerea Bilbao
Naroa Castrillejo
Ane Rubio

**02**
GOSERIK EZ
HAMBRE CERO

**Nekazaritzaren sektorea munduko enplegatzailerik handiena da, eta munduko biztanleen % 40ari errazten dizkio bizibideak. Diru-sarrera eta enplegu-iturri handiena da landa-etxe pobreenetan. /** El sector de la agricultura es el mayor empleador del mundo y proporciona medios de vida al 40 % de la población mundial actual. Es la mayor fuente de ingresos y empleos para los hogares rurales pobres.

**Berrikuntza, teknologia eta digitalizazioa elikagaien eta nekazaritzaren sektoreetan aplikatu behar dira, elikagaien ekoizpena handitzeko. Elikagaien balio-katean parte hartzen duten guztiei lagundu egin behar zaie. /** La innovación, la tecnología y la digitalización deben aplicarse a los sectores alimentario y agrícola para aumentar la producción de alimentos y apoyar a todos los que participan en la cadena de valor alimentaria.

**2015 eta 2016 artean, Saharaz hegoaldeko Afrikan gosea zuten pertsonen kopurua 200 milioitik 224 milioira igo zen, hau da, 2016an munduan elikadura ona izan ez zuten 815 milioi pertsonen % 25. /** Entre 2015 y 2016, el número de personas que padecen hambre en África subsahariana subió de 200 a 224 millones, lo que supone el 25 % de los 815 millones de personas que no tuvieron una buena alimentación en el mundo en 2016.

**Gaur egun, munduan bederatzi pertsonatik bat (815 milioi pertsona inguru) azpielikatuta dago. /** Una de cada nueve personas en el mundo está subalimentada en la actualidad; esto es, alrededor de 815 millones de personas en el mundo.



**Laura López**
**David Esteban**
**Ibai Silicato**
**Aitana Rodríguez**
**Laura Valbuena**
**Enara Huidobro**

**03**
OSASUNA ETA ONGIZATEA
SALUD Y BIENESTAR

**2000-2015 aldian malariak eragindako 6,2 milioi heriotza baino gehiago saihestu ziren, batez ere Saharaz hegoaldeko Afrikako bost urtetik beherako haurretan. Malariaren intzidentzia-tasa orokorra % 37 jaitsi da, eta heriotza-tasak, berriz, % 58. /** Entre 2000 y 2015 se evitaron más de 6,2 millones de muertes por malaria, principalmente de niños menores de cinco años en el África subsahariana. La tasa global de incidencia de la malaria ha disminuido en un 37 % y las tasas de mortalidad en un 58 %.



**1990ean baino 17.000 haur gutxiago hiltzen dira egunero, baina 5 milioi haur baino gehiago hiltzen dira urtero 5 urte bete aurretik. /** Cada día mueren 17.000 niños menos que en 1990, pero más de cinco millones de niños mueren cada año hoy en día antes de cumplir los 5 años.



**Substantzia adiktiboen abusuaren prebentzioa eta tratamendua indartu behar dira, estupefazienteen erabilera desegokia eta alkoholaren kontsumo kaltegarria barne. /** Se debe fortalecer la prevención y el tratamiento del abuso de sustancias adictivas, incluido el uso indebido de estupefacientes y el consumo nocivo de alcohol.



**2030erako, sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbide unibertsala bermatu behar da, familia-plangintza, informazioa eta hezkuntza barne. /** Para 2030, hay que garantizar el acceso universal a los servicios de salud sexual y reproductiva, incluidos los de planificación de la familia, información y educación.



**Osasun-estaldura unibertsala lortu behar da, bereziki finantza-arriskuen aurkako babesa, kalitatezko funtsezko osasun-zerbitzuetarako sarbidea eta guztiontzat sendagai eta txerto seguruak, eraginkorrak, eskuragarriak eta kalitatezkoak. /** Es necesario lograr la cobertura sanitaria universal, en particular la protección contra los riesgos financieros, el acceso a servicios de salud esenciales de calidad y el acceso a medicamentos y vacunas seguros, eficaces, asequibles y de calidad para todos.





---

**Soraya Morgado**
**Naia Villafruela**
**Diego Calleja**
**Leire Robledo**
**Janire Sanz**
**Gurutze Fagoaga**

## 04
## KALITATEZKO HEZKUNTZA
## EDUCACIÓN DE CALIDAD

**Datuek erakusten dutenez, hezkuntza da Afrikako herrialde gehien-gehienentzat ez betetzeko arrisku handiena duen helburuetako bat. /** Los datos demuestran que la educación es uno de los objetivos que mayor riesgo de incumplimiento representa para la inmensa mayoría de los países del continente africano.



**Unibertsitateen erantzukizuna da pertsonentzat, planetarentzat eta oparotasunarentzat beharrezkoak diren hezkuntza eta ezagutzak sortzea, Garapen Jasangarrirako Helburuekin konprometitutako ikerketaren bidez. /** Es responsabilidad de las universidades la educación y la creación de conocimiento mediante la investigación comprometida con los Objetivos de Desarrollo Sostenible necesarios para las personas, el planeta y la prosperidad.



**Garrantzitsua da ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teoriko eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, genero-berdintasunerako hezkuntzaren bidez. /** Es importante asegurar que todo el alumnado adquiera los conocimientos teóricos y prácticos necesarios para promover el desarrollo sostenible, entre otras cosas mediante la educación para la igualdad de género.




**Haur guztiek, lehen hezkuntzarako prest egon daitezen, lehen haurtzaroan arreta- eta garapen-zerbitzuak izan behar dituzte, baita kalitatezko eskolaurreko hezkuntza bat ere. /** Todas las niñas y todos los niños deben tener acceso a servicios de atención y desarrollo en la primera infancia y educación preescolar de calidad, a fin de que estén preparados para la enseñanza primaria.



**Hezkuntza da beste GJH asko lortzeko gakoa. Pertsonek kalitatezko hezkuntza jaso ahal dutenean, pobreziari ihes egin ahal izango diote. Horrela, hezkuntzak desberdintasunak murrizten laguntzen du. /** La educación es la clave para poder alcanzar otros muchos ODS. Cuando las personas puedan acceder a una educación de calidad, podrán escapar del ciclo de la pobreza. De esta manera, la educación contribuye a reducir las desigualdades.





Iruntze Antuñano
Shaila Arias
Laura Valbuena
Laura Pla
Julene de la Fuente
Mª Carmen Amenabarro

**05**

GENERO BERDINTASUNA

IGUALDAD DE GÉNERO

**Bost emakume eta neskatotik batek, 15 eta 49 urte bitarteko emakumeen eta nesken % 19k barne, indarkeria fisikoa eta/edo sexuala jasan du bikotekide baten eskutik azken 12 hilabeteetan. Hala ere, 49 herrialdetan ez dago emakumeak indarkeria horretatik berariaz babesten dituen legerik. /** Una de cada cinco mujeres y niñas, incluido el 19 % de las mujeres y las niñas de 15 a 49 años, han sufrido violencia física y/o sexual por parte de una pareja íntima, durante los últimos 12 meses. Sin embargo, en 49 países no existen leyes que protejan específicamente a las mujeres contra tal violencia.

**Oraindik ere herrialde batzuetan emakumeek ez dute iritzirik. Haien iritziak ez du baliorik edo jazartuta dago. Generoen arteko berdintasuna lortzeko, funtsezkoa da emakumeek erakundeetan, erabakiak hartzerakoan eta lidergo- eta kudeaketa-postuetan parte har dezaten sustatzea. /** Todavía existen países en donde las mujeres carecen de opinión, o su opinión no vale o está perseguida. Para lograr la igualdad entre los géneros es esencial promover la participación de la población femenina en las instituciones, en la toma de decisiones y en las posiciones de liderazgo y gestión.

**Gutxienez 200 milioi emakumek eta neskatok jasan dute emakumeen mutilazio genitala 30 herrialdetan. /** Al menos 200 millones de mujeres y niñas en 30 países se sometieron a la mutilación genital femenina.

**Mundu-mailan, 750 milioi emakume eta neska 18 urte bete baino lehen ezkondu ziren. /** A nivel mundial, 750 millones de mujeres y niñas se casaron antes de los 18 años.













Valeria León
Leire Máiztegui
Olatz Eguiguren
Monika Batarrika
Janire Fandiño
Richard Garbi

**06**
UR GARBIA ETA SANEAMENDUA
AGUA LIMPIA Y SANEAMIENTO

**Giza jardueren ondoriozko hondakin-uren % 80 baino gehiago ibaietan edo itsasoan isurtzen da inolako tratamendurik gabe, eta horrek kutsadura eragiten du. /** Más del 80 % de las aguas residuales resultantes de actividades humanas se vierten en los ríos o el mar sin ningún tratamiento, lo que provoca su contaminación.



**Uraren kalitatea hobetu behar da, kutsadura murriztuz, isurketa ezabatuz eta produktu kimiko eta material arriskutsuen isurketa minimizatuz. /** Es esencial mejorar la calidad del agua reduciendo la contaminación, eliminando el vertimiento y minimizando la emisión de productos químicos y materiales peligrosos.



**Egun bakar batean, Saharaz hegoaldeko Afrikako 25 herrialdetan, emakumeek 16 milioi ordu ematen dituzte ura biltzen. Hori askotan eskolatzearen edo ordaindutako lanaren kaltetan gertatzen da, eta zama astunak behin eta berriz eta distantzia luzeetan garraiatzeak osasunean arriskuak eragiten dizkiete. /** En un solo día en 25 países del África subsahariana, las mujeres pasan 16 millones de horas recogiendo agua, a menudo en detrimento de la escolarización o el trabajo remunerado, y con posibles riesgos para la salud derivados de transportar cargas pesadas repetidamente y a través de largas distancias.



**Baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra nabarmen handitu behar da sektore guztietan. Ur gezaren erauzketaren eta horniduraren jasangarritasuna bermatu behar da, ur-eskasiari aurre egiteko eta ur-falta jasaten duten pertsonen kopurua nabarmen murrizteko. /** Es necesario aumentar considerablemente el uso eficiente de los recursos hídricos en todos los sectores y asegurar la sostenibilidad de la extracción y el abastecimiento de agua dulce para hacer frente a la escasez de agua y reducir considerablemente el número de personas que sufren falta de agua.



**Komunitateek aurrera egin dezaten, ur-baliabide garbiak, edangarriak eta seguruak eskuratzen dituztela erraztea funtsezko aurrebaldintza da. /** Facilitar el acceso a recursos hídricos limpios, potables y seguros constituye un prerrequisito esencial para que las comunidades puedan prosperar.



**Ibaietatik, lakuetatik eta akuiferoetatik ateratako ur guztien % 70 inguru ureztatzeko erabiltzen dira. /** Aproximadamente el 70 % de todas las aguas extraídas de los ríos, lagos y acuíferos se utilizan para el riego.



**Nerea Martínez**
**Shaila Arias**
**Ana Alcubierre**
**Marina Morales**
**Nerea Gallego**
**Gurutze Fagoaga**

## 07
## ENERGIA ESKURAGARRI ETA EZ KUTSATZAILEA
ENERGÍA ASEQUIBLE Y NO CONTAMINANTE

**Energia da nagusiki klima-aldaketari eragiten dion faktorea. Berotegi-efektuko gasen munduko isurketa guztien % 60 inguru da. /** La energía es el factor que contribuye principalmente al cambio climático y representa alrededor del 60 % de todas las emisiones mundiales de gases de efecto invernadero.



**Energia nuklearrak hainbat aukera sortzen dituen arren, estatu bakoitzak bere estatuko energia-politikak finkatzeko duen eskubidea errespetatu behar da. /** Pese a las diversas alternativas que produce la energía nuclear se ha de respetar el derecho de cada estado a fijar sus propias políticas energéticas nacionales.



**Etxeko energiarako erregaiak erabiltzearen ondorioz, lokal itxietako airearen kutsadurak 4,3 milioi heriotza eragin zituen 2012an; 10etik 6 emakumeak eta neskak izan ziren. /** La contaminación del aire en locales cerrados debido al uso de combustibles para la energía doméstica causó 4,3 millones de muertes en 2012, 6 de cada 10 de estas fueron mujeres y niñas.



**Etorkizunerako mundu jasangarriagoa eta arduratsuagoa lortu behar da, finantza-oztoporik gabea, hotzaldietan pertsona guztiek argia eta berogailua izan dezaten. /** Se debe conseguir un mundo más sostenible y responsable en el futuro, sin barreras financieras que impidan que las personas tengan luz o calefacción en las épocas de frío.



**Energia berriztagarriaren proportzioa nabarmen handitu behar da energia-iturri guztietan. /** Se debe aumentar considerablemente la proporción de energía renovable en el conjunto de fuentes energéticas.





Constanza Herrera
Saray Llorente
Gorka Cabello
Irati Peralta
María José Avilés
Amaia Barberena

**08**
LAN DUINA
ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA
TRABAJO DECENTE
Y CRECIMIENTO ECONÓMICO

**Hazkunde inklusibotik oso urrun gaude oraindik. Emakumeek oraindik ere aukera gutxiago dute biztanleria aktiboaren parte izateko eta aukera gehiago dituzte lanpostu txarrenak betetzeko (arriskutsuak, ez-seguruak eta gaizki ordainduak). /** Estamos aún muy lejos del crecimiento inclusivo. Las mujeres siguen teniendo menos probabilidades de formar parte de la población activa y más probabilidades de ocupar los peores puestos de trabajo (peligrosos, inseguros y mal pagados).



**Esparru sendoa ezarri behar da haurrek jasandako urraketei aurre egiteko, bereziki haur soldaduak errekrutatzeko eta erabiltzeko. /** Debe establecerse un marco sólido para hacer frente a las vulneraciones sufridas por niños, en particular el reclutamiento y la utilización de niños soldados.



**Lan-eskubideak babestu behar dira, eta lan-ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatu langile guztientzat, langile migratzaileentzat barne, bereziki emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituzten pertsonentzat. /** Es esencial proteger los derechos laborales y promover un entorno de trabajo seguro y sin riesgos para todos los trabajadores, incluidos los trabajadores migrantes, en particular las mujeres migrantes y las personas con empleos precarios.



**Afrikako diamanteen zati bat gerra-eremuetan lortzen da, azken horiek finantzatzeko, esklaboak edo erdi-esklabotzako erregimenean dauden pertsonak erabiliz. /** Una parte de la obtención de diamantes en África se realiza en zonas de guerra para su financiación, mediante el uso de esclavos o personas en régimen de semiesclavitud.



**Berehalako neurri eraginkorrak hartu behar dira lanetan bortxaketak desagerrarazteko eta egungo esklabotza-moduei eta pertsonen salerosketari amaiera emateko. /** Se deben adoptar medidas inmediatas y eficaces para erradicar el trabajo forzoso, poner fin a las formas contemporáneas de esclavitud y la trata de personas.



**Salerosketaren biktimen artean neska-mutilen kopurua hirukoiztu egin da azken 15 urteetan. /** El número de niños y niñas entre las víctimas de trata se ha triplicado en los últimos 15 años.



**Naroa Castrillejo**
**Lara Martínez**
**Bihotz Ibarzabal**
**Richard Garbi**
**Ana Alcubierre**
**Laura Pla**

**09**
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA
ETA AZPIEGITURA
INDUSTRIA, INNOVACIÓN
E INFRAESTRUCTURA

